

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

2025eko enplegu publikoaren eskaintza

2025eko azaroaren 27ko 513 zenbakiko Alkatetza Dekretuaren bidez, honako erabaki hau hartu zen:

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 70. artikulua enplegu publikoaren eskaintza egituratzen du administrazio publikoetan langile berriak sartzeko, eta haren gobernu-organoei esleitzen die hura onartzeko eskumena. Era berean, ezartzen du enplegu publikoaren eskaintzaren xede izango direla sartu berri diren langileen bidez hornitu behar diren giza baliabideen beharrak, aurrekontu-esleipenarekin.

Toki Administrazioaren esparruan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 91. artikuluan ezartzen denez, toki-korporazioek jendaurrean aurkeztu behar dute beren lan-eskaintza, Estatuko oinarritzko araudian finkatutako irizpideei jarraiki. Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 128. artikulua ezartzen duenez, toki-korporazioek urtero onartu eta argitaratuko dute dagokion urterako lan-eskaintza publikoa, funtzio publikoari buruzko Estatuko oinarritzko legeriara eta Estatuko oinarritzko araudia garatzeko erreklamendu bidez ezartzen diren irizpideetara egokituta, gainerako herri-administrazioen enplegu-eskaintzekin behar bezala koordinatzeko.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52. artikulua ezartzen duenez, administrazio bakoitzean dauden baliabideekin bete ezin diren eta, ondorioz, langile sartu berriei bete behar diren aurrekontu-esleipena duten lanpostuak betetzeko langileen beharrianak enplegu publikoaren eskaintzaren xede izango dira.

Ikusirik 2025eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorren Legea ez dela onartu, eta, beraz, Espainiako Konstituzioaren 134. artikuluan ezarritakoaren arabera, "Aurrekontuen Legea dagokion ekitaldi ekonomikoaren lehen eguna baino lehen onartzen ez bada, aurreko ekitaldiko aurrekontuak automatikoki luzatutzat joko dira berriak onartu arte". Aurrekoa kontuan hartuta, eta gai baketsua izan gabe, Enplegu Publikoaren Eskaintza egin eta onar daitekeela uste da, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 20. artikuluko birjarpen-tasa murriztu gabe.

Hala ere, Estatuaren 2025. urterako aurrekontu orokorreari buruzko erregulazioa onartzen denean, korporazioak onartutako enplegu publikoaren eskaintza, Estatuak enplegu publikorako eskaintzarako ezarritako arauetara egokitu beharko da.

Zigoitiko Udaleko lanpostuen zerrendak aurrekontuetan hornitutako eta hautaketa-prozesuen bidez bete daitezkeen lanpostu huts hauek jasotzen ditu, guztiak ere amortizazioak edo egitura-aldaketak eragin gabe:

— Jendeari arreta emateko administrari laguntzaile plaza bat, txanda irekiz beteko dena, titularra beste administrazio publiko batzuetan lan egiteagatik eszedentzia-egoerara pasatzean hutsik geratu ondoren.

— Obra eta zerbitzuetako buruaren plaza bat, berria, Zigoitiko Udalaren Osoko Bilkurak 2025eko ekainaren 27an Udaleko langileen Lanpostuen Zerrenda (LPZ) onartu ondoren. Zerrenda hori 2025eko uztailaren 16ko 80. ALHAOn argitaratu zen, eta txanda irekiz bete behar da.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. artikuluan esleitutako eskumena ikusita, Udaltzazak honako ERABAKI hau hartu du aho batez:

LEHENENGOA. Zigoitiko Udalean plaza hutsak egoteagatik 2025eko ekitaldirako enplegu publikoaren eskaintza onartzea.

ESKALA	AZPIESKALA	ERREGIMENA	IZENDAPENA	TALDEA	LANPOSTUAK	SARBIDE-SISTEMA
ADMINISTRAZIO OROKORRA	LAGUNTZAILEA	FUNTZIONARIOA	JENDAUURREKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	C2	1	TXANDA IREKIA
ADMINISTRAZIO BEREZIA	ZERBITZU BEREZIAK	LABORALA	OBRA ETA ZERBITZUETAKO BURUA	C1	1	BARNE-SUSTAPENA

BIGARRENA. ALHAOn, iragarki-taulan eta egoitza elektronikoan argitaratzea lan-eskaintza publiko hauek.

HIRUGARRENA. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Ebazpen horren ebazpen espresuaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtsoa ezesten duen ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Ondategin, 2025eko abenduaren 11n

Alkatea
JAVIER GORBEÑA GARCÍA